

Gorka Garcia Barroeta

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko lehendakaria

Bolondresgo Legea: bai, ez ala zer

■ Bolondresgo Legearen Aurreproiektu bat badugu gure esku, jada. Eta honen edukina aztertu eta gero, bolondresgo erakunde batentzat oinarritzaile diren puntu guztietan aldaketa galantak iragartzen direla konturatuko gara: bolondres beraren esanahian, honen eskubide eta betebehartean, bere lana egiten duen erakundearekiko harremanean, dirulaguntzak banatzeko politikan...

Gainera, hemendik aurrera, erakunde-elkargo eta Administrazioaren arteko hartu-emanak baldintzatuko dituzten bi egitura berri martxan jarriko dira, aurreproiektuaren arabera: alde batetik, bolondresgoaren erolda orokorra (agian ez dago indarrean elkargoen eroldia bat, *Elkargoen Lege*-tik sortua?), bestetik, Bolondresgoaren Euskal Kontseilua (INCAVOL, Bolondresgoaren Katalan Institutua inork gogoan edukiko ote du?). Eta gu, horrela.

Hala eta guztiz, *Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza* Sailak hasi eta aurrera eramanez duen prozedura, hurrengo asteartean, hilaren 11n, *Bolondresgo eta Elkartasunaren II. Hitzaldia*-rekin gori-gori jarriko dena alegia, bidezkoa izan dela, formalki behinik behin, adierazi behar da. Administrazioak hasitako prozedura batean inoiz baino jende gehiagok, hasiera batean behintzat, parte hartu baitu. Nahiz eta aldi berean beste gauza hau esan beharra dagoen. Jende horren guztia-aren ekarpenak oso murriztak izan direla, bai prozedura berari begira —honen *abidurak* interesatuak zeuden elkargo batzuen partehartzea eragotzi baitu, eta batzuen, gure auzo eta herrietan lanean diharduten txiki-ene batez ere, prozedura osoari buruzko ezagupen eza ahalbideratuz duelako—, baita prozedura barruan landutako edukinei dagokienez, eta hemen argi esan behar da: Gasteizen antolatutako I. Hitzaldian, gero erabazitako lan taldeetan eta II. Hitzaldian hurrengo prestatzeko bereziki osatutako Komite Aholkularian landutako gaietatik, ba ote da posible aurreproiektu hain kalkulatu, hain pentsatu, hain *trukun* ateratzea? Ez dakigu, ez dakigu...

Gai honen oinarrietariko bi atalagatiko ditugu jarraian: partehartzea eta berau garatzeko asuntua, eta Administrazio eta Gizarte Zibilaren arteko harreman berria.

Egia da, Administrazio eta Gizarte Zibilaren arteko erlazio-marko berri bat proposatzea behar-beharrezkoa dugun gai bat dela gaur egun, Administrazioa hirita-

Daukagun bolondresgo sarea oso anitza da: autolaguntza, gizarte mailakoa, kulturala... agian koordinazio faltarekin baina bere izaeraduna eta batez ere, indartsu eta eraginkorra

rrengandik gero eta urrunago daukagunean, guk aukeratu dugun Administrazio horrek gure arazoak gehienetan erantzun egoki bat eskaintzen ez dienean. Araza, aldiz, hori guztia aurrera jotzeko prozedura nola gauzatzea datza, parte hartzeko bide berriak, bide eraginkorrak nola bultzatzea. Argi duguna behintzat, zera da: prozedura horri mesede egiteko, legeak ezinbestekoak ez direla.

Gehiago esanez, Gizarte Zibila lege berriez kokotaraino dago. Partehartzea bultzatzeko, legeak baino, beste motatako ekintza puntualak ezartzeko aldekoak gara. Gure kasuan, Euskadiko Elkarkidetzaren oraina eta etorkizuna da jokoan dagoena. Eta horrek kezkatzen gaitu. Eta gure elkargo eta bolondresko parte hartu behar dute nahitaez. Kezka garria delako gure 90.000 bat bolondresen artean dagoen lege horrekiko ezagupen falta. Kezka garria delako gure 2.000 bat elkargoen artean lege hori lantzeko prozeduran partizipazio falta. Argi baitago lege honen legimititatea ez dagoela *nortzeuk parte hartzen dugun* galderaren erantzunean, *horrekin ados zenbat gauden* baizik; kasu honetan gutxiengo bat baino ez. Eta horretarako Hitzaldi bat gehiago edo gutxiago antolatzea bost axola. Kezka garria delako halaber, hain berezko eta pertsonala den iharduera batekin lege bat ezarri nahi izatea, are gehiago, aspalditik elkargoen eta bolondresen aldetik beste motatako neurriak eskatzen direnean: azpiegituren hobekuntza, heziketarako laguntzak, inzentibo fiskalak, lankidetzat-itunak... lege baten errepresentagarriak ez diren ekintzak.

Eta beste gauza bat. Daukagun bolondresgo sarea oso anitza da: autolaguntza, gizarte mailakoa, kulturala... agian koordinazio faltarekin baina bere izaeraduna eta batez ere, indartsu eta eraginkorra.

Hau guztia horrela izanda, apaltasunez, EAEko gazte elkargoetatik sortua eta hauen alde lanean dagoen organo bat izateak eskeintzen digun legimititate apurraz eta gure sorrera-legeak ematen digun Administrazioarekiko solaskide izateko aukera aprobetxatuz, eskaera bat egin nahi dugu, arren, astearteko Hitzaldi eta balizko Bolondresgo Legearen aurrean: *benetako* parte hartzeko, hobetzeko, bultzatzeko, erlaziozatzeko bideak izan daitezten. Pazientzia, pazientzia asko erabiliz bai, baina baita, eta batez ere, *borondatea*. Hor baitago koxka, askotan faltan izaten duguna. Asteartea arte. Adio. ■

Txillardegí



Brussel

Joan den larunbateko ekintza gogoangarria, Brusseleko behin baino gehiagotan egin zidaten galdera bera: 1965, 1996; gu hara ihesi iritsi ginenean, hobeto ginen? okerrago?

Hona hemen, arrapaladan, gogotarako murrizketa.

Gu, besterik ezazten saiatuagatik ere, *español anti-frankista* ginen. Joan den astean, beriz, *herri ukatua* garelako ulertu dute brusseldarrek.

1965ean ez-egutia zen ETA oraindik. Burgos gertakizun zegoen, eta *euskal* arazorik ez zegoen. Ez zegoen borroka armatu abertzalerik (Manzanastorturatzalearen hilketa 1968an gertatuko zen). Eta 1936ren ondorioz deserriar bizi zirenak, faszismoaren biktimak ziren.

Ez zegoen Herri Batasunik, ez LABIK. Ez zegoen euskal ezkerrik, ez langileria abertzalerik. Sozial-imperialismoa, moztorturik, bai, eta ugari.

Ikastolen mugimendua bere hastapenetan zegoen. Ez zegoen Euskara Batirik; ez euskal literaturarik, ez kanta berri abertzalerik, oro har.

EGUNKARIA ere ez zegoen, jakina; baina *La Gaceta del Norte* eta *El Pensamiento Navarro* saltzen ziren. Eta goizetan Martxe Otamendi irakurri beharrean, *Desperdicios* topatzen genuen. Bapoi!

Iparraldean ez zegoen *Enbata* astekariaren inguruko multxoaz besterik. Eta Nafarroan? NBBko buruzagi hark esan ziguna: *«No necesito vuestra ayuda. No tengo ni quiero problemas con nuestras juventudes»*. Ez zeukatela inor adierazi nahi zigun, jakina.

Okerrago ote gaur? Otoi!

Ramon Labaien



Bildurraren pakea

Hauteskundeak Israelen eta herria zati-tua. Denon helburua pakea nola lortu izanik, ez edozein pake ordea. Pakea sendotuko duen pake bat eta ez gerla berri bat ekarriko duen horietakoa. Pakea indarrean eta segurtasunean eta zuzenbidean. Armeke emaitzen duten indarrean nola ez, bainan baita ere izpirituak, ausartasunak, solidaritateak. Segurtasunaren ikuspegitik gauza bat izanik Palestinarrei zor zaizkienak eta bertzea Estatu Arabiar zenbaitzuen Diktadore interesak. Eta zuzenbidearenetik, Landa Sainduan Historiak kokatutako gizarte guzieren eskubideak errespetatuz. Rabinek proposatutako pakearen aukera izan dute Israeldarrek batetik eta bildurraren pakearena bestetik. Baliteke Rabinek ematen zuen segurtasun hura falta izana Simon Pereseri... Hemen ere, Euskal Herrian, denok nahi dugu pakea, bainan hemen ere ez edozein pake, abertzale ikuspegi batetik behintzat. Argi izanik indar aski duela Herri honek bere pakea lortzeko lehergailu eta tiroen laguntzarik gabe. Ez pake eta ez gerla, ustelkeria eta bildur hutsa azaltzen duten medio horiek, odol ixuritzearen ahultasunean sartzen gaituztenak. Ez ote gara eroriko Euskadunak Israel erori den bildurraren tentaldian.

L A P H I T Z A

